

Guardia Zibilak 'zulo' bat aurkitu du Ametzagan, eta beste lagun baten bila dabil • 8

politika

■ Arizkuren gose grebarekin segitzeko asmoa azaldu du berriro • 10

■ Olentzero bigarren goz Algecirasen izan da, hango euskal presoak askatzeko asmoz • 11

gizartea

■ Aurreikuspenak gaituta bete du Kontseiluak lehen urtemuga • 16-17

ekonomia

■ Gutxieneko soldata 75.000 pezetakoa izateko eskatu dute sindikatuek • 24

■ Lan istripuak saihesteko neurriak exijitu dituzte ELAk eta LABek • 25

kultura

■ Alfonso Sastrenen gaineko saiakera bat eta lau antzezlan bildu ditu ASKE-k bi liburutan • 41

Bihar ez da EGUNKARIARik izango. Gaur gabon eguna dela eta, ohi den bezala, EGUNKARIAko langileok jai hartuko dugu. Beraz, bihar ez da EGUNKARIARik argitaratuko. Hala ere, igandean normaltasun osoz jaso ahal izango duzue.

Su-eten mugagabea aldarrikatu dute Korsikako lau talde armatuk

«Jospinek hasitako elkarrizketa publikoari» sustengua berretsi diotela esan dute

■ KORSIKAKO FLNC historikoak eta beste hiru talde armatuk baldintzarik gabeko su-eten mugagabea aldarrikatu zuten atzo, elkarrekin egindako agerraldian. Duela egun batzuk Lionel Jospin Frantziako lehen ministroak Korsikako alderdiekin hasitako el-

Lau talde armatuek jakinarazi dute aurrerantzean, FLNC izen soila hartuta, batera jardungo dutela

karrizketa prozesua dela medio hartu dute erabakia taldeok. Ekimen horrekin, «elkarrizketa publikoari» sustengua berretsi diotela azaldu zuten. Elkarrizketa prozesuak Korsikarentzako garapen xede bat finkatuko duen esperantza ere adierazi zuten. • 28

Ipar Irlanda



Eguberrietan kartzelak ia hutsik

■ ATZO eta gaur bitartean 335 preso aterako dira kalera Ipar Irlandako kartzeletatik. Horietatik asko preso politikoak dira, odol delituetatik dituztenak barne. Herrialde hartan zabalduko prozesu politikoaren barnean Londresekin eginiko keinu bat izan da. Hamabost

eguneko baimena eman diete presoek senideekin ospa ditzaten Eguberri eta Urteberri egunak. Prozesuak etenik ez badu, datorren uztaileko preso politiko guztiak aske geratuko dira. Argazkian Long Kesh espetxe ezagunetik hainbat preso irten ziren unea ageri da.

• 29



Euskal Departamendua

Ipar Euskal Herriak hitza eduki behar duela aldarrikatu du Ehunen Deiak

■ Otsail erdirako Parisek erantzuten ez badu, erresistentzia zibila abiatuko dute • 7